

NOLAKOAK IZANGO DIRA GURE PARTE HARTZAILEAK ETA BEZEROAK?

Alde batetik, gure proiektuan parte hartzen duena edonor izan daiteke aplikazioak deskargatzeko smartphone bat eskuragarri izanik (inibidualki aritzeko 16 urte gorako herritarrak izatea da komenigarri, berriz, txikiagoak baldin badira pertsona nagusi batekin aritu daitezke). Adin muga alde abtera utzita, gure enpresak helburutzat duena herritarrak plastikoa birziklatzearen ezak ekartzen dituen arazoetaz jabetu daitezzen da eta hori gaintzeko gauzak egiten hastea. Beste aldetik, gure plastikoa erosiko duten enpresak ohartu behar dira plastiko hori haien eskuetara heldu aurretik, zelako inpaktu ona izan duen Durango mailan.

Gure proiektuan argi eta garbi utzi nahi dugu ez dela bezero-segmenturik bereiziko, hau da, ez ditugula bezeroak edo parte hartzaileak taldetan sailkatuko haien ezaugarrien arabera. Proiektu honetan, Durangoko herritar guztientzat zerbitzu berbera eskainiko dugu modu berebanean denontzako, uste dugulako eskatzen diren baldintzak eskuragarri daudela herritar guztientzako. Honela izaten ez bada eta herritar batek arazoren bat badauka proiektuaren beharrak betetzeko (adibidez: smartphone bat ez izatea) gurekin kontaktuan jarri eta guri birziklatu nahi duen plastikoa entregatuz puntuen batura egingo diogu berdin berdinean.